LEHIAKETA PUBLIKOA, «Gasteiz bidearen urbanizazioa» egiteko. 10032

CONCURSO PÚBLICO para la ejecución de las obras de «Urbanización de Gasteiz bidea». 10032

Pribatuen Iragarkiak

NEIKER

IRAGARKIA, NEIKER Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. sozietate publikoarena, 8 lanpostutarako deialdiari buruzkoa. 10034

Anuncios Particulares

NEIKER

ANUNCIO de la Sociedad Pública NEIKER Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B., relativo a la convocatoria de 8 puestos de trabajo. 10034

Xedapen Orokorrak

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

Zk-2494

68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legea hiri-inguruneari, espazio publikoen, eraikinen, garraiabideen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasuna bermatzeko eta, horrela, horiek guztiak pertsona guztiek eta bereziki mugikortasun urria, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial (aldi baterakoak edo iraunkorrak) dituztenek autonomiaz erabili eta gozatzea ahalbidetzeko helburuarekin onartu zen.

Legearen bigarren azken xedapenak legezko testua garatzeko arau teknikoak lantzea aurreikusten zuen. Arau horietan hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, garraiabideen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzak zehaztu behar dira. Horrela, hainbat arauren bitartez artikulatutako irisgarritasunari eta hirigintza-oztopoak kentzeari buruzko arauak bat egin eta harmonizatzea aurreikusten zen.

Zentzu honetan, eta abenduaren 4ko 20/1997 Legean xedatutakoa betetzeko, «guztientzako diseinu unibertsal» batean kontuan hartu behar diren, hiri-ingu-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

Nº-2494

DECRETO 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

La Ley 20/1997, de 4 de diciembre, sobre Promoción de la Accesibilidad, fue aprobada con la finalidad de garantizar la accesibilidad del entorno urbano, los espacios públicos, los edificios, los medios de transporte y los sistemas de información y comunicación, permitiendo su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación, o cualquier otra limitación psíquica o sensorial de carácter temporal o permanente.

La disposición final segunda de la ley preveía la elaboración de las correspondientes Normas de carácter técnico en desarrollo del texto legal en las que se determinen las condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, los espacios públicos, los edificios, los medios de transporte y los sistemas de información y comunicación, refundiendo y armonizando las normas referentes a accesibilidad y supresión de barreras urbanísticas articuladas a través de diferentes normas.

En este sentido y a fin de cumplimentar lo dispuesto en la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, se ha procedido a la elaboración de las Condiciones Técnicas a te-

runeari, eraikinei eta komunikazio-sistemei lotuta dauden eta legea garatzen duen araudi teknikoaren zati handi bat osatzen duten hainbat eranskinetan bilduta dauden Baldintza Teknikoak landu dira.

Elementu antropometrikoei buruzko I. Eranskinak irisgarritasunaren arloko oinarrizko definizioak barne hartzen ditu, horien artean irisgarritasunaren kontzeptu europarra barne hartuta. Kontzeptu hau irisgarritasunari buruzko proposamen unibertsalean oinarrituta dago eta, helburu gisa, hiri-ingurunea erabiltzean denak aukera berdinekin eta ahalik eta modurik independenteenean moldatu ahal izatea ezartzen da. Hori lortzeko, pertsonen behar desberdinak denek erabiltzeko moduko instalazioetan integratu behar dira. Hauxe da irisgarritasunaren kontzeptu europarrak aurkezten duen «diseinu unibertsalaren» oinarria. Laburbilduz, edozein pertsonak ingurune eraikia independentziaz eta modu normalizatu batez erabiltzeko aukera izan dezan lortu nahi du irisgarritasunaren kontzeptu europarrak.

I. Eranskinak, halaber, irisgarritasunari dagokionez zailtasunak dituzten pertsona-taldeak identifikatzen ditu eta neurriak, gorputz-dimentsioak, helmen- eta kontrol-egoerak, mugimendu eta transferentzietarako espazio-beharrak eta hiri-ingurunea, eraikinak, garraioa eta komunikazio-sistemak diseinatzeko kontuan hartu diren eta hartu behar diren eta legea garatzeko funtsezkoak diren alderdiak ezartzen ditu.

II. Eranskinak hiri-inguruneko eta, bereziki, espazio publikoetako eta ekipamendu komunitarioetako irisgarritasun-baldintzak arautzen ditu pertsonen erabilera eta gozamena bermatzeko helburuarekin.

III. Eranskinean eraikinen irisgarritasun-baldintzak ezartzen dira —titulartasun publikoko zein pribatuko eraikin guztiak barne hartuta— pertsona guztien erabilera eta gozamena bermatzeko helburuarekin. Azkenik, IV. eta V. Eranskinek komunikazio-sistemetako irisgarritasun-baldintzak eta zabalkuntza-, eraberritze-edo aldaketa-obretako irisgarritasun-baldintzak ezartzen dituzte hurrenez hurren.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Aholku-Batzorde Juridikoak dioena entzun ondoren, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko apirilaren 11n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira, Dekretu honen I., II., III., IV. eta V. Eranskin gisa agertzen direnak hain zuzen ere.

ner en cuenta en un «diseño universal para todos» referidas al entorno urbano, la edificación, y los sistemas de comunicación, contenidas en una serie de anejos que conforman gran parte de la normativa técnica de desarrollo de la ley.

El Anejo I, sobre Elementos Antropométricos incluye las definiciones básicas en materia de accesibilidad entre las que se incluye el concepto europeo de accesibilidad. Este concepto se basa en la propuesta universal de accesibilidad estableciendo como objetivo el que el entorno deba de disponerse de modo que permita a todos desenvolverse igualmente y de la forma más independiente posible. Esto se consigue integrando las distintas necesidades de las personas en instalaciones que pueda utilizar todo el mundo. Esta es la base de un «diseño universal» que presenta el Concepto europeo de accesibilidad. Como resumen, el concepto europeo de accesibilidad persigue que cualquier persona debe tener la posibilidad de usar con independencia y de forma normalizada el entorno construido.

El Anejo I identifica igualmente los grupos de personas con dificultades en la accesibilidad, y establece las medidas, dimensiones corporales, situaciones de alcance y control, necesidades de espacio para los movimientos y transferencias, y aquellos aspectos que se han tenido y deben tenerse en cuenta para el diseño del entorno urbano, la edificación, el transporte y los sistemas de comunicación, que resultan fundamentales para el desarrollo de la ley.

El Anejo II regula las Condiciones de Accesibilidad en el Entorno Urbano, en particular en los espacios públicos y los equipamientos comunitarios, con la finalidad de garantizar su uso y disfrute por las personas.

En el Anejo III se establecen las Condiciones de Accesibilidad en la Edificación, afectando a todos los edificios ya sean de titularidad pública o privada, con la finalidad de garantizar su uso y disfrute por todas las personas. Por último los Anejos IV y V establecen respectivamente las Condiciones de Accesibilidad en los Sistemas de Comunicación y en las Obras de ampliación, reforma o modificación.

En su virtud, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 de abril de 2000,

DISPONGO:

Artículo único.– Se aprueban las Normas Técnicas sobre Condiciones de Accesibilidad de los Entornos Urbanos, Espacios Públicos, Edificaciones y Sistemas de Información y Comunicación, que figuran como Anejos I, II, III, IV y V del presente Decreto.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.– Dekretu honetan xedatutakoa, indarrean sartu ondoren eskatutako baimen, emakida eta lizentzia oro ematean aplikagarria izango da.

Bigarrena.– Dekretu honetan xedatutakoa, Dekretua indarrean sartzean hasiera batez onartutako eta, ondorioz, behin-behinekoz edo behin betikoz onartzeko geratzen diren hirigintza-plangintzako tresnetan eta urbanizazio-proiektuetan aplikagarria izango da. Horrela, dokumentua -hala badagokio- Dekretu honen agindui egokitzeko, hiru hilabeteko epea ezartzen da Dekretua indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehena.– Ondokoak indargabetuta geratzen dira:

– Martxoaren 23ko 59/1981 Dekretua, hirigintza-oztopoak kentzeko araudiari buruzkoa.

– Abenduaren 19ko 291/1983 Dekretua, arkitektura-oztopoak kentzeko araudiari buruzkoa.

Bigarrena.– Era berean, Dekretu honetan aurreikusitakoaren aurka edo horrekin kontraesanean dauden maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari ahalmena ematen zaio bere eskumenen esparruan Dekretu hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabetera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko apirilaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Lo dispuesto en el presente Decreto será de aplicación en el otorgamiento de toda clase de autorizaciones, concesiones y licencias solicitadas con posterioridad a la fecha de su entrada en vigor.

Segunda.– Lo dispuesto en el presente Decreto será de aplicación a los instrumentos de planeamiento urbanístico y proyectos de urbanización aprobados inicialmente en la fecha de entrada en vigor del Decreto, pendientes de aprobación provisional o definitiva, estableciéndose un plazo de tres meses a partir de dicha fecha para la adaptación en su caso del documento a las prescripciones del presente Decreto.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera.– Quedan derogados:

– El Decreto 59/1981, de 23 de marzo, sobre Normativa para la supresión de Barreras urbanísticas.

– El Decreto 291/1983, de 19 de diciembre, sobre Normativa para la supresión de Barreras arquitectónicas.

Segunda.– Quedan derogadas igualmente cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan a lo previsto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente para dictar en el marco de sus competencias, cuantas disposiciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor a los seis meses a partir de la fecha de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipaturiko Eranskinak

En Suplemento aparte se publican los Anexos que se citan